

PROGRAMA PUBLIKOA

IREKIERA-HITZALDIA

Chiharu Shiota eta Tereza de Arruda

2025eko maiatzaren 27a, asteartea

18:00. Bastida Aretoa

Doako sarrera aldeztu aurretik webgunean izena emanda edukiera bete arte

AUDIOGIDA



BISITALDIEN PROGRAMA

SARRERAKO BISITAK

Ostegunero 18:30etan. (30')

Erakusketa Aretoa

DOAKO SARRERA aldeztu aurretik izena emanda AZ Info-n, Erakusketa Aretoan edo azkunazentroa.eus webgunean

HIZKUNTZA: euskara eta gaztelania, eskariaren arabera.

Hilabete bakoitzeko lehen ostegunean, bisita euskaraz izango da.

GUTXIENAKO EDUKIERA: 4 pertsona

FAMILIENTZAKO BISITAK

Ibilbide irekia erakusketaren inguruko jarduerak eta jolasak biltzen dituen paperezko gida baten bidez, familia-elkarrizketa sortzeko eta hari buruzko begirada eta hausnarketa birtia sustatzeko.

Materiala Erakusketa Aretoko atariko mostradorean eskatu.

CHIHARU SHIOTA HOUSE is your HOUSE My


ATRIOA

1 / *Internal Line*

Soineko gorri monumentalak dituen instalazioa sortu du Chiharu Shiotak Atarian, izugarrizko inpaktu bisualeko, eskala handiko eta esanahi sakoneko lana. Bertan ez dauden izakiak irudikatzen dituzte arropa horiek, zintzilik dauden, autonomoak diren eta elkarri konektatuta dauden arropen bidez sinbolizatuta. Existentzia, trukea eta oroitzapen iragankorren kontserbazioa gorpuzten dituzte.

Kasu honetan, ehunak etxearen lanak ere egiten ditu, babesaren eta maitasunaren sinbolo gizakiontzat.

ERAKUSKETA ARETOA



2 / *My House is your House*

Chiharu Shiotaren obran behin eta berriz agertzen den sinboloa da etxea. Memoria, identitatea, kide izatea eta denboraren iragaitza irudikatzen ditu. Gai horiek bigarren areto honetan gorpuzten dira, *The Inside and Outside* lanaren bidez. Bertan, *Partekatu zure etxearen historia* ekintza parte-hartzailearen bidez herritarrek emandako gutunak eta marrazkiak sartu ditu.

3 / *Becoming Painting*

Bere ikasketetan, Chiharu Shiotak, bere espresio artistikoa zabaltzeko beharra sentituz, pintura utzi zuen, ez baitzuen bere potentzial sortzailea guztiz gorpuzten. 1994an, *Becoming Painting* bere lehen performancea sortu zuen. Horrek aldaketa ekarri zuen pintura konbentzionalarekiko, Shiotak bere sortze-prozesua bere izatearen luzapen zuzen eta pertsonal bihurtu baitzuen.

4 / *Connected to the Universe*

Shiotak trebetasun izugarria du bere esperientzia pertsonalak hizkuntza artistiko puru eta bikain bihurtzeko, soilak baina sakonak diren elementu gutxi batzuetan oinarrituta. Espazio honetako grabatuek eta marrazkiek unibertsoari hari baten bidez lotuta dagoen izaki bat irudikatzen dute, zilbor-hestea edo, agian, jaio aurreko bizitzaren hasiera sinbolizatuz.

5 / *Body and Soul*

Gorputza, hauskortasuna eta gaixotasuna Chiharu Shiotaren artean sakonki errotuta dauden kezkek dira, askotan giza formarekin eta, zehazkiago, bere esperientziekin lotuta. Instalazio horiek gorputzaren iragankortasuna nabarmentzen dute, gure errealtate fisikoei, emozionalei eta arimari forma ematen dieten indar intimoak eta maiz ikusezinak esploratzean.

My House is your House / Nire etxea zurea ere bada Berline bizi den Chiharu Shiota (Osaka, Japonia, 1972) artista japoniarrak Euskadin egindako lehen erakusketa monografikoa da. Munduko arte garaikidearen figura nabarmenetakoa den artista honen 90. hamarkadatik aurrerako ibilbidea jartzen du ikusgai, eta Azkuna Zentroan eta Bilbon inspiratutako *site-specific* instalazio berriak ditu barne.

Chiharu Shiotak gai unibertsalak arakutzen ditu artelanetan, besteak beste, etxea, memoria, migrazioa, bizitza eta heriotza, horretarako eguneroko objektuak erabiliz, izan arropa, izan altzariak, izan bestelako objektu pertsonalak. Objektuok hari-sare korapilatsuetan biltzen dira, ehun tradizionalari eta ekialdeko kaligrafiari erreferentzia eginez. Eskala handiko instalazioak kolore gorri nabarmenekoak dira sarri, Japoniako kulturen gorria bizitzaren, energiaren eta eguzkiaren sinboloa izanik. Hizkuntza mintzatuaz, naziotasunaz edo erlijioaz gaindi hedatzen ditu artelanak, kontakizun unibertsala eskaintzeko, oroimena galtzeaz, elkarlotzeaz eta iraunarazteaz.

Tereza de Arruda arte-historialariak komisariatutako *My House is your House / Nire etxea zurea ere bada* erakusketa honetarako, Chiharu Shiotak, Azkuna Zentroko taldearekin batera, etxearen kontzeptua landu du, etxeko eremua espazio publikora zabalduz, Bilboko Alhóndigako arkitekturekin harremanetan jarritz. Emaitzak, *site-specific* moduan, gonbit egiten dio publikoari etxeko giro desberdinak esperimentatzera, bisitaria bere oroitzapenekin lotzen dutenak, eguneroko bizitzako elementuetatik abiatuta.

CHIHARU SHIOTA

(Osaka, Japonia, 1972)

Chiharu Shiota pinturan (Kiotoko Seika Unibertsitatea, 1992-1996) eta arte bisualetan (Braunschweigeko Goi Mailako Arte Eskola, 1997-1999 / Berlingo Arte Akademia, 1999-2003) trebatuta dago, eta Berline bizi da.

Erakusketa hauek egin ditu, besteak beste: Nakanoshima Museum of Art, Osaka; Hammer Museum, Los Angeles; Queensland Art Gallery of Modern Art (QAGOMA), Brisbane; ZKM | Zentrum für Kunst und Medien, Karlsruhe; Zeelanda Berriko Te Papa Tongarewa Museoa, Wellington; Mori Arte Museoa, Tokio; Gropius Bau, Berlin; Australiako Hegoaldeko Arte Galeria; Yorkshire Sculpture Park, Erresuma Batua; Kochiko Arte Museoa; eta Osakako Arte Museo Nazionalea. 2025eko lehen hiruhilekoan, Parisko Grand Palais-en erakutsi ditu bere artelanak.

Nazioarteko erakusketa askotan ere parte hartu du, hala nola Oku-Notoko Nazioarteko Arte Jaialdian, Sydneyko Biurtekoan, Echigo-Tsumariko Arte Hirurtekoan eta Yokohamako Hirurtekoan eta São Pauloko SESC Pinheiros-en. 2015ean, Shiota hautatu zuten Japonia ordezkatzeko Veneziako Bienalaren 56. edizioan.

TEREZA DE ARRUDA

(São Paulo, Brasil, 1965)

Tereza de Arruda arte-historialaria eta komisarioa da. São Paulo (Brasil) eta Berlin (Alemania) artean bizi da, eta komisario-lanak egin ditu European, Hego Amerikan, Estatu Batuetan eta Asian, besteak beste, Ilya eta Emilia Kabakov, Chiharu Shiota, Sigmar Polke, Yang Shaobin eta Wang Chengyun artisten erakusketa monografikoetan eta nazioarteko erakusketa kolektiboetan, testuinguru soziokultural garrantzitsuetan.